



## IRAGARKIA

Zigoitiko Udalak, 2022ko maiatzaren 23an egindako ohiko osoko bilkuran, ondorengo hitzarmena onartzea erabaki zuen. 2022ko abuztuan formalizatu zuten bi aldeek, eta honela dio hitzez hitz:

**ADMINISTRAZIO-HITZARMENA, ZIGOITIKO HERRITARREK ZUIAKO KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO, IGERILEKUAK ZABALIK DAUDEN EPEAN, ETA ERROLDATU GISA, BENGOLARRAKO UDAL KIROL INSTALAZIOAK BIRGAITZEKO ETA HANDITZEKO OBREK IRAUTEN DUTEN EPEAN ZEHAH.**

### **HONAKO HAUEK BILDU DIRA**

Alde batetik, JAVIER GORBEÑA GARCÍA jauna, Zigoitiko Udaleko alkate-udalburua, Udal horren ordezkari gisa.

Bestetik, UNAI GUTIERREZ URKIZA, Zuiako Udaleko alkate-udalburua, Udal horren ordezkari gisa.

### **GAITASUNA**

Bi aldeek aitortzen diote elkarri lege-gaitasun eta ordezkaritza nahikoa administrazio hitzarmen hau sinatzeko, eta, xedehorrez, honako aurrekari eta zuzenbideko oinarri hauek azaltzen dituzte.

### **AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** Zigoitiko Udala Bengolarrako kirol-instalazioen titularra da (Gopegin daude, Zigoitian), eta, 2022ko apirilaren 1etik, instalazioak birgaitzeko eta handitzeko obrak egiten ari dira. Hori horrela, ezinezkoa da udal-igerilekuak obra horiek egiten ari diren bitartean erabiltzea.

**BIGARRENA.-** Zigoitiko herritarrek ezingo dituzte udal igerilekuak erabili 2022ko eta 2023ko udetan, aipatutako obraren ondorioz (aurreikusten du 18 hilabeteko iraupena izango dutela hasten direnetik).

## ANUNCIO

El Ayuntamiento de Zigoitia, en sesión ordinaria de pleno celebrada el día 23 de mayo de 2022, acordó aprobar el siguiente convenio. En agosto de 2022 se formaliza entre las partes, con el tenor literal siguiente:

**CONVENIO ADMINISTRATIVO DE UTILIZACIÓN POR LA POBLACIÓN DE ZIGOITIA DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS DE ZUIA DURANTE LOS PERIODOS DE PAERTURA DE LAS PISCINAS, EN CALIDAD DE PERSONAS EMPADRONADAS, DURANTE EL PERÍODO DE DURACIÓN DE LAS OBRAS DE REFORMA Y AMPLIACIÓN DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS MUNICIPALES DE BENGOLARRA.**

### **REUNIDOS**

De una parte, D. JAVIER GORBEÑA GARCÍA, en su calidad de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zigoitia, en representación de dicho Ayuntamiento.

De otra, D. UNAI GUTIERREZ URKIZA, en su calidad de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zuiá, en representación de dicho Ayuntamiento.

### **CAPACIDAD**

Ambas partes se reconocen mutuamente, capacidad legal y representación suficiente para suscribir el presente convenio administrativo y a tal efecto exponen los siguientes antecedentes y fundamentos de derecho.

### **ANTECEDENTES**

**PRIMERO.** El Ayuntamiento de Zigoitia es titular de las instalaciones deportivas de Bengolarra, ubicadas en la localidad de Gopegi en el municipio de Zigoitia en las que se está llevando a cabo, desde el pasado 1 de abril de 2022, las obras de reforma y ampliación de las instalaciones que hacen imposible el uso de las piscinas municipales mientras se estén desarrollando dichas obras.

**SEGUNDO.** Ante la imposibilidad de que la población de Zigoitia pueda utilizar las piscinas municipales durante las temporadas estivales 2022 y 2023, como consecuencia de la realización de las obras citadas cuya ejecución está prevista que se alargue durante el plazo de 18 meses desde su inicio.





**HIRUGARRENA.-** Ikusi da Zigoitian erroldatutako pertsonen beste aukera bat eskaintzeko beharra, Bengolarrako instalazioak birgaitzeko eta handitzeko obrak egiteko epean titulartasun publikoko igerilekuen instalazioen zerbitzua erabili ahal izateko (hasiera batean, 2022 eta 2023 udetarako).

**LAUGARRENA.-** Zuiako Udala da Palatu izeneko kirol-gunearen jabea, zeina Zuiako Murgia udalerrian dagoen. Besteak beste, bi igerileku ditu.

**BOSGARRENA.-** 2012tik Zigoitiko eta Zuiako Udalen artean administrazio- eta lankidetzahitzarmenak sinatu dira, Zigoitiko eta Zuiako biztanleek udalerrri bateko eta besteko kirol-instalazioak erabiltzeko.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**LEHENENGOA.-** Ikusi da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak 25.1 artikuluan xedatutakoa: "Udalerrriak, bere interesak kudeatzeko bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak zein nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake". Ildo berean, lege horretako 25.2 l) artikulua honako hau ezartzen du: "Udalerrriak, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu:

l) Kirola eta kirol instalazioak eta aisialdikoak sustatzea".

**BIGARRENA.-** Ildo berean mintzatzen da Euskal Autonomia Erkidegoa, Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen bidez, zeinak 2. artikuluan honako hau xedatzen duen printzipio gidariei dagokienez: "1. Kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria.

2. Pertsona guztien funtsezko eskubidea da kirola askatasunez eta norbere borondatez egitea.

**TERCERO.** Vista la necesidad de ofrecer una alternativa a las personas empadronadas en Zigoitia para poder hacer uso del servicio de instalaciones de piscinas de titularidad pública durante el plazo de ejecución de las obras de reforma y ampliación de las instalaciones de Bengolarra (en principio para las temporadas estivales 2022 y 2023).

**CUARTO.** Siendo el Ayuntamiento de Zuia propietario del complejo deportivo denominado "Palatu", ubicado en la localidad de Murgia en el término municipal de Zuia, que cuenta, entre otros equipamientos, con dos vasos de piscinas.

**QUINTO.** Habiendo sido suscritos desde el año 2012 convenios administrativos de colaboración entre el Ayuntamiento de Zigoitia y el Ayuntamiento de Zuia para la utilización indistinta, por parte de la población de Zigoitia y de Zuia, de las instalaciones deportivas de uno y otro municipio.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**PRIMERO.** Resultando que el art. 25.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local establece que: "El Municipio, para la gestión de sus intereses y en el ámbito de sus competencias, puede promover actividades y prestar los servicios públicos que contribuyan a satisfacer las necesidades y aspiraciones de la comunidad vecinal". En esta misma línea el art. 25.2.l) de la citada ley dispone que: "El Municipio ejercerá en todo caso como competencias propias, en los términos de la legislación del Estado y de las Comunidades Autónomas, las siguientes materias:

l) Promoción de deporte e instalaciones deportivas y de ocupación del tiempo libre".

**SEGUNDO.** En el mismo sentido se pronuncia la Comunidad Autónoma del País Vasco mediante la promulgación de la Ley 14/1988, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco que establece en su art. 2, relativo a los principios rectores, que: "1. El deporte constituye una actividad social de interés público que contribuye a la formación y al desarrollo integral de las personas, a la mejora de su calidad de vida y al bienestar individual y social.

2. Se reconoce el fundamental derecho de todas las personas a la práctica del deporte de forma libre y voluntaria.





3. Aginte publikoek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute...”

**HIRUGARRENA.-** Zigoitiko Udalak, bere eskumenen barruan, udalerriko biztanleek kirola egiteko eta kirol orekatua sustatzeko asmoa du, eta, xede hori lortzeko, udalaren titulartasuneko kirol instalazioak pertsona guztientzat eskuragarri daude.

**LAUGARRENA.-** Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.1 artikulua xedatutakoa betez, hitzarmenak “administrazio publikoek elkarren artean hartutako akordioak dira, ondorio juridikoak dituztenak”.

**BOSGARRENA.-** 40/2015 Legearen 48.3 artikulua honako hau ezartzen du: “Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezten lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete”. Hitzarmenak dirulaguntza bat bideratzen badu, dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, eta, hala badagokio, aplikatu beharreko autonomia-erkidegoko garapen-araudian aurreikusita dagoena bete beharko du”.

**SEIGARRENA.-** Azkenik, 40/2015 Legearen 50.1 artikulua honako hau xedatzen du: “...hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinetan aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea”. Gauzatu nahi den ekintzak egin ahal izateko, aipatutako aldeek honako

## KLAUSULAK

**LEHENENGOA.** Hitzarmen honen xedea da Zuiako Udaleko titulartasunekoak diren kirol instalazioak igerilekuak zabalik dauden aldian Zigoitiko herritarrek erabiltzeko baldintzak adieraztea, erroldatu gisa, Zigoitiko udal kirol instalazioak birgaitzeko eta handitzeko obrek irauten duten epean zehar. Xede horrez, Zigoitiko udalerriko erroldatuei Zuiako udal Kirol instalazioak erabiltzeko aukera emango zaie. Hala, Udal horrek Zuian erroldatutako

3. Los poderes públicos, en el ámbito de sus respectivas competencias, garantizarán el adecuado ejercicio del citado derecho...”

**TERCERO.** Que el Ayuntamiento de Zigoitia, dentro de sus competencias propias, tiene el objetivo de promover la actividad deportiva de la población del municipio y la práctica del deporte proporcionando, para lograr este objetivo, instalaciones deportivas de titularidad municipal accesibles a todas las personas.

**CUARTO.** Que el art. 47.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público define los convenios como “acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas entre sí”.

**QUINTO.** El art. 48.3 de la Ley 40/2015 dispone que: “La suscripción de convenios deberá mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuir a la realización de actividades de utilidad pública y cumplir con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera”. Asimismo, cuando el convenio instrumente una subvención deberá cumplir con la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y la normativa autonómica de desarrollo que, en su caso, resulte aplicable”.

**SEXTO.** Por último, el art. 50.1 de la Ley 40/2015 establece que: “...será necesario que el convenio se acompañe de una memoria justificativa donde se analice su necesidad y oportunidad, su impacto económico, el carácter no contractual de la actividad, así como el cumplimiento de lo previsto en esta Ley”.

A los efectos de llevar a cabo la acción que se pretende, las partes citadas aprueban las siguientes:

## CLÁUSULAS

**PRIMERA.** El presente Convenio tiene por objeto plasmar las condiciones para la utilización de las instalaciones deportivas de titularidad del Ayuntamiento de Zuiá por parte de la población de Zigoitia durante el periodo de apertura de la temporada de piscina, en calidad de personas empadronadas, durante el período en que se desarrollen las obras de reforma y ampliación de las instalaciones





personen eta familien urteko tasa ordaindu beharko dute, eta ez errolatuta ez dauden pertsonen eta familien tasa.

2022an, Zuian errolatutako pertsona eta familien tasak honako hauek dira:

-Banakako abonua, 14 urteko edo gutxiagoko errolatuak: 12,75 €

-Banakako abonua 14 urtetik gorakoentzat: 25,55 €

-Familia-abonua (gurasoak eta 30 urte arteko seme-alabak, baldin eta diru-sarrerak ez badituzte): 63,90 €

Bestalde, Zuiako Udalak 2022an Zuian errolatuta ez dauden pertsona edo familientzako kirol-instalazioak erabiltzeagatik onetsitako udal-tasak honako hauek dira:

-Banakako abonua, 14 urteko edo gutxiagoko errolatu gabeko pertsonak: 25,55 €

-Banakako abonua 14 urtetik gorakoentzat: 51,15 €

-Familia-abonua (gurasoak eta 30 urte arteko seme-alabak, baldin eta diru-sarrerak ez badituzte): 127,70 €

**BIGARRENA.** Hitzarmen honen xedea gauzatzeko, alde sinatzaileak honako betebeharrak hauek betetzera konprometitzen dira:

### ZIGOITIKO UDALA

Zigoitiko Udala, hitzarmen hau sinatzean, konprometitzen da, indarreko urte bakoitzeko uda amaiztean, Zuiako Udalarari ordaintzera Zuiako instalazioetan abonatuta dauden eta Zigoitian errolatuta dauden pertsona edo familia bakoitzaren tasaren arteko aldea ordaintzera. Alde hori errolatutako pertsonentzat eta errolatu gabeko pertsonentzat aurreikusitako tasaren artekoa da. Zenbateko horiek honako hauek izango dira 2022 ekitaldirako, pertsona edo familia bakoitzeko eta abonua-mota bakoitzeko:

-Banakako abonua, 14 urteko edo gutxiagoko errolatuak: 12,80 €

-Banakako abonua 14 urtetik gorakoentzat: 25,60 €

-Familia-abonua (gurasoak eta 30 urte arteko seme-alabak, baldin eta diru-sarrerak ez badituzte): 63,80 €

2023rako, Zigoitiko Udalak ordaindu beharreko kopurua, udalerrian errolatutako eta Zuiako instalazioetan abonatutako pertsona edo familia bakoitzeko, Zuian

deportivas municipales de Zigoitia. Para lo cual a las personas empadronadas en el municipio de Zigoitia se les permitirá la utilización de las instalaciones deportivas de Zuia abonando la tasa anual aprobada por dicho Ayuntamiento para las personas y familias empadronadas en Zuia y no las tasas para personas o familias no empadronadas.

Para el año 2022 las tasas para personas o familias empadronadas en Zuia son las que, a continuación, se indican:

-Abono individual empadronadas de 14 años o menos: 12,75€

-Abono individual mayores de 14 años: 25,55€

-Abono familiar (progenitores e hijos hasta 30 años si no tienen ingresos): 63,90€

Mientras que las tasas municipales, aprobadas por el Ayuntamiento de Zuia, por uso de instalaciones deportivas para personas o familias no empadronadas en Zuia para el año 2022 son:

-Abono individual no empadronadas de 14 años o menos: 25,55€

-Abono individual mayores de 14 años: 51,15€

-Abono familiar (progenitores e hijos hasta 30 años si no tienen ingresos): 127,70€

**SEGUNDA.** Para llevar a cabo el objeto del presente Convenio, las partes firmantes se comprometen a las siguientes obligaciones:

### AYUNTAMIENTO DE ZIGOITIA

El Ayuntamiento de Zigoitia se compromete con la suscripción del presente Convenio, a la finalización de cada temporada estival de cada año de vigencia del presente convenio, a abonar al Ayuntamiento de Zuia la diferencia entre la tasa prevista para personas empadronadas y la prevista para no empadronadas por cada una de las personas o familias empadronadas en Zigoitia que hubieran adquirido la condición de abonadas a las instalaciones de Zuia y que se concretarían para el ejercicio 2022 en las cantidades siguientes por persona o familia y tipo de abono:

-Abono individual empadronadas de 14 años o menos: 12,80€

-Abono individual mayores de 14 años: 25,60€

-Abono familiar (progenitores e hijos hasta 30 años si no tienen ingresos): 63,80€

Para el año 2023, el importe a abonar por el Ayuntamiento de Zigoitia, por cada una de las personas o familias empadronadas en su municipio que hubieran adquirido la condición





errolatutako pertsonentzako edo familientzako eta bertan errolatuta ez daudenentzako arteko aldea izango litzateke (Zuiako Udalak 2023 ekitaldirako onetsiko luke dagokion Udal Ordenantzan).

Hitzarmen honetan ezarritako ordainketa betebeharra betetzeko, Zigoitiko Udalak ekitaldi bakoitzean indarreko udal-aurrekotuan behar besteko diru-izendapena egiteko konpromisoa hartzen du, betebeharrak horri erantzuteko.

### ZUIAKO UDALA

Zuiako Udalak Zigoitiko errolatuek uda osoan kirol instalazioak erabiltzeko aukera izateko konpromisoa hartzen du. Horretarako, ekitaldi bakoitzean Zuiako pertsona eta familia errolatuentzat onetsitako udal tasak ordaindu beharko dituzte, egin beharreko abonua motaren arabera.

Zuiako Udala, hitzarmen hau sinatzean, konprometitzen da, indarreko urte bakoitzeko uda amaitzean, Zigoitiko Udalarik Zigoitiko udalerrian errolatutako pertsona edo familiei egindako abonuen dokumentazio justifikatiboa bidaltzera, Zuiako Udalak Zigoitiko pertsona edo familiei likidatutako tasen eta Zuian bizi ez diren pertsonak edo familiak izateagatik ordaindu beharko lituzketenen arteko aldeari dagokion zenbatekoa likidatu eta ordaintzeko. Xede horrez, Zigoitiko Udalarik bidaliko dizkio zerrenda xehatua edo hitzarmen honen xedea betetzeko Zigoitiko pertsonen edo familien egindako likidazioak edo autoliquidazioak.

**HIRUGARRENA.-** Hitzarmenaren eta alde sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteaz arduratuko den organoa Udal sinatzaile bakoitzaren ordezkari bakoitzak osatutako Batzardea izango da.

**LAUGARRENA.-** Hitzarmen honetan jasotako hizpaketen aldaketak alde sinatzaileen adostasun osoa beharko du.

de abonadas a las instalaciones de Zuia, sería la diferencia entre la tasa municipal para personas o familias empadronadas y la tasa para personas o familias no empadronadas en Zuia que fuera aprobada por el Ayuntamiento de Zuia para el ejercicio 2023 en su correspondiente Ordenanza Municipal.

Para dar cumplimiento a la obligación de pago que se establece en este convenio, el Ayuntamiento de Zigoitia se compromete a efectuar la consignación suficiente en el presupuesto municipal vigente en cada ejercicio para responder de dicha obligación.

### AYUNTAMIENTO DE ZUIA

El Ayuntamiento de Zuia se compromete a que las personas empadronadas de Zigoitia puedan utilizar sus instalaciones deportivas durante el periodo estival abonando las tasas municipales que tenga aprobadas en cada ejercicio tanto para personas como para familias empadronadas en Zuia en función del tipo de abono a realizar.

El Ayuntamiento de Zuia se compromete, a la finalización de las temporadas estivales de los años en que esté vigente el presente convenio, a remitir al Ayuntamiento de Zigoitia la documentación justificativa de los abonos realizados a personas o familias empadronadas en el municipio de Zigoitia, al objeto de que pueda practicarse la correspondiente liquidación y abono del importe correspondiente a la diferencia entre las tasas liquidadas por el Ayuntamiento de Zuia a las personas o familias zigoitianas y las tasas que correspondería haber abonado al tratarse de personas o familias no residentes en Zuia. A tal efecto, remitirá al Ayuntamiento de Zigoitia un listado detallado o copia de las liquidaciones o autoliquidaciones practicadas a las personas o familias zigoitianas objeto del presente convenio.

**TERCERA.** El órgano encargado de efectuar el seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por las partes firmantes será una Comisión formada por un representante de cada uno de los Ayuntamientos firmantes.

**CUARTA.** La modificación de cualquiera de las estipulaciones recogidas en el presente Convenio requerirá acuerdo unánime de las partes firmantes.





**BOSGARRENA.-** Hitzarmen honek 2 urteko hasierako iraupena izango du, formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita.

**SEIGARRENA.-** 40/2015 Legearen 51. artikuluan xedatutakoa betez, Hitzarmen hau azkentzeko arrazoiak honako hauek dira:

1. Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe
2. Sinatzaile guztien ahobatezko erabakia
3. Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea. Halakoetan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio bereak bete ez dituen alderdiari, epe jakin baten barruan bete ditzan betegabetzat jotako betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendua hauei komunikatuko zaie: hitzarmenaren betearazpenaren jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoaren arduradunari eta sinatu duten gainerako alderdiei. Errekerimenduan azaldutako epea igaro eta ez betetzeak irauten badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die badagoela hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak, eta hitzarmena suntsituta dagoela ulertuko da. Hitzarmena arrazoi horregatik suntsiarazten bada, gerta daiteke sortutako galerak ordaindu behar izatea, hala aurreikusita bada.
4. Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratu duen erabaki judiziala.
5. Aurrekoez bestelako edozein arrazoi, indarreko beste lege batzuetan aurreikusita badago.

**ZAZPIGARRENA.-** Bi aldeek Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren esku jarriko dituzte sor daitezkeen auziak.

**ZORTZIGARRENA.-** Hitzarmen honetan ez jasotako lege- eta funtzionamendu- alderdi guztietan honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Udal honetako kultura, kirol edo gizarte jardueren antolakuntza ordaintzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen Ordenantza, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua. Eta horrekin ados daudela adierazteko, ebazpen honen bi ale sinatzen dituzte, goian adierazitako tokian eta orduan.

**QUINTA.** El presente Convenio tendrá una duración inicial de 2 años desde la fecha de su formalización.

**SEXTA.** Conforme a lo dispuesto en el art. 51 de la Ley 40/2015, las causas de resolución del presente Convenio son:

1. Transcurso del plazo de vigencia del mismo sin haberse acordado prórroga.
2. Acuerdo unánime de las partes firmantes.
3. Incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por las partes firmantes. En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo junto con las obligaciones o compromisos que se entienden incumplidos. Este requerimiento se pondrá en conocimiento del órgano encargado de efectuar el seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio. Si transcurrido el plazo persistiese el incumplimiento, se notificará a la parte incumplidora y se entenderá resuelto el presente Convenio pudiendo llevar aparejada la indemnización de los perjuicios ocasionados.
4. Por decisión judicial de nulidad del Convenio.
5. Por cualquier otra causa prevista en la legislación vigente.

**SÉPTIMA.** Ambas partes someterán a las cuestiones litigiosas que puedan plantearse a la competencia de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

**OCTAVA.** En todos aquellos aspectos, legislativos y de funcionamiento, no contenidos en el presente Convenio, será de aplicación lo dispuesto en la Ordenanza Específica Reguladora de las Bases de las Subvenciones para Sufragar la Organización de Actividades Culturales, Deportivas y/o Sociales de este Ayuntamiento, en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el RD 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

Y en prueba de conformidad, se firma el presente Convenio, por duplicado, en el lugar y fecha arriba indicado.

**SINADURA ELEKTRONIKODUN DOKUMENTUA  
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

